



DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2017

OSALAN

1. Prebentzio ordezkarien oinarritzko prestakuntza emateko diru-laguntzaren 2017rako deialdia 2



1.- Izenburua

Prebentzio ordezkarien oinarrizko prestakuntza emateko diru-laguntzaren 2017rako deialdia

2.- Araua

31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa. 35.-37. artikuluetan ezartzen ditu prebentzio-ordezkarieren irudia, haren eskumenak eta ahalmenak.

EBAZPENA, 2017ko apirilaren 11koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena. Honen bidez, prebentzio-arloko ordezkariek oinarrizko prestakuntza jasotzeko baimenaren eta diru-laguntzaren deialdia egiten da, 2017ko ekitaldirako.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Prebentzio-ordezkariek trebatzeko oinarrizko mailako prestakuntza ematea nahi duten erakunde publiko zein pribatuei dei egitea.

Erakundeen baldintzak: Hezkuntza Sistemak aitortutako eta homologatutako ikastetxeak, edo Gizarte Segurantzako Lan Istripen eta Lanbide Gaixotasunen Mutualitateak edo egiaztatutako Prebentzio Zerbitzuak izatea.

Prestakuntza-ekintzak oinarrizkoak izango dira, Lan Arriskuen Prebentzioari eta Osasunari lotutako Lanbide arteko Akordioan ezarri bezala, eta bi zati izango dituzte: bata 16 ordukoa, araudi-arloko prestakuntza, eta bestea 32 ordukoa, prestakuntza teknikoa.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2017ko deialdiaren bitartez, 57 prestakuntza-erakunde baimendu ziren, 29 Bizkaian, 12 Araban eta 16 Gipuzkoan.

Guztira, araudi-arloko 38 ikastaro (7 Araban, 20 Bizkaian eta 11 Gipuzkoan) eta arlo teknikoko 37 ikastaro (7 Araban, 19 Bizkaian eta 11 Gipuzkoan) egin dira.